

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Hitza, elea, berba.

Hitza da komunikatzeko dugun tresnarik indartsuena. Hitzarekin azaltzen dugu nor garen, zer nahi dugun eta nora goazen. Hitzez osatzen dugu gure memoria eta amesten gure etorkizuna.

Hitza eskainiz eta hitza eskatuz jokatzeko dugu ahobizi edo belarriprest. Hitzekin eraiki ditzakegu zubiak, josten ditugu sareak. Hitzez sentitzen gara komunitate. Hitzarekin elkar eragiten dugu.

Hitza eraikitzeko, hitza ehuntzeko, hitza harresiak botatzeko, hitza funtzioak berreskuratzeko, hitza irabazteko.

Hitza elkarri esateko, ahobiziaz belarriprestari eta belarriprestak ahobiziaz. 15 egunetan hitzez arakatuko ditugu ezezagunak zaizkigun territorio berriak.

Ekintza, ekimena, ekina

Ekintza da motibazioa gauzatzeko tresna, nahi dugun hori errealitate bihurtzeko baliabidea. Ekimenen bidez piztu dugu komunitatea, mantendu dugu sua bizirik. Ekinez lortuko dugu kalea irabaztea.

Ekintza-herria gara, milaka lagun mugiarazi eta auzolanean aritzeko gaitasuna duen herria. Auzoz auzo, herriz herri, jendea batu eta ekimen-olatu antola dezakeen komunitatea da gurea. Milaka lagun, milaka boluntario, ekintzak lotuta.

Ekinaren ekinez irabazten ditugu espazioak, babesguneak, ariguneak. Ekinez egingo ditugu gure elkarte, enpresa eta erakundeak euskararentzako abegikor.

Ekintza harreman-sareak ugaritzeko, ekimena ohiturak aldatzeko, ekina inertziak astintzeko.

Garaia, aroa, aldia

Hautuak harrotasunez erakutsi eta probatzeko garaia da Euskaraldia. Txapak jarrita ingurukoei gure nahia erakusteko garaia.

Garaia da urrats sendoak emateko, hautu pertsonal eta kolektiboak gehituz bide berriak urratu eta ohiturak zein joko-arauak aldatzeko.

Garaia orain ere bada, edozein momentu da egokia, baina garai hau da abagunea. Babesturik, taldean, batera aritzeko aroa da Euskaraldia.

Hitzez ekiteko gonbidapena da hau. 15 egun ditugu hitza ekintza bihurtuta, lorpen berriak izateko. Lorpen txiki, ertain eta handiak. Milaka, milioika lorpen. Lorpen askoren gehiketarekin aldatuko baititugu gizartearen inertziak ere.

Hitzak mugitzeko eta mugiarazteko boterea du. Hitzez ekinez gu geu mugituko gara eta gure ingurukoak mugiaraziko ditugu, baita mugiezinak diruditenak ere.

Eutsi hitzari, bultza ekimenarekin, orain da garaia!
Jantzi txapak, gora bihotzak: **Hitzez ekiteko garaia hasi da!**

Euskal Herrian, 2022ko azaroaren 17an

